

AHTren eta Proiektu Txikitzaileen

Dia contra el Tren de Alta Velocidad y las grandes infraestructuras

DONOSTIALDEA-DARSO-BIDASOKO




24412

Aurkako Eguna

DONOSTIAN

Martxoak 3 igandea

- 11etan **Bretxan eta Sarriegi Plazan:**
TRIKITILARIAK, NEKAZARITZA EKOLOGIKOA ERAKUSKETA
- 12etan **HAURENTZAKO TXOKOA.** Sebastopoleko Titiriteroekin. Sarriegi Plazan
- 12etan **BIZIKLETA MARTXA "AHTrik EZ! Txikizioa Gelditu!"**
Irteera Bretxatik. Ibilbidea: Bretxa-Anoeta-Easo Plaza-Zurriola-Gipuzkoako Plaza-Bretxa
- 1etan **Jende arteko HERRI KIROLAK** Sarriegi Plazan
- 2etan **HERRI BAZKARIA** Trinitate Plazan
- 3:30etan **EKITALDI INFORMATIBO LABURRA** Trinitate Plazan
Hizlariak: Teresa Jauregizar (Gladys del Estal Fundaziokoa) eta AHT Gelditu! Elkarlaneko kide bat
- 4etan **BERTSOLARIAK** Trinitate Plazan:
Estitxu Arozena, Jon Maia, Amets Arzallus eta Estitxu Eizagirre
- 5etan **TXAN MAGOA** Trinitate Plazan
- 6etan **KALEJIRA BURRÜNATSUA** aterako da Trinitate Plazatik
"Mulambo" batukadarekin
- 6:30etan **"AGUA O EN ITOIZ"** Kale antzerkia Sarriegi Plazan
KALEJIRAREN AMAIERA
- 7:30etan **Landetxako TALDAK** trinitate Plazan
- 8etan **Jaizkibelgo Superportuaren aurkako diaporama**
AHTren aurkako borrokaren bideo irudiak
- Egun osoan zehar: **Proiektu txikitzaileen aurkako ERAKUSKETA INFORMATIBOA** Sarriegi Plazan
- 9etan **AMAIERA ETA BILKETA**



...eta martxoaren 23an AHTren aurkako MANIFESTAZIOA, Hernanitik Astigarragara

AHTren ETA PROIEKTU TXIKITZAIILEEN AURKAKO EGUNERA DEITU DU AHT GELDITU! ELKARLANAK MARTXOAREN 3AN DONOSTIAN

Abiadura Handiko Trena gelditzeko Manifestazioa egingo da martxoaren 23an Hernanitik Astigarragara

Datorren martxoaren 3an, igandearekin, Donostian egingo den AHTren eta Proiektu Txikitzaileen Aurkako Egunean parte hartzera deitzen du AHT GELDITU! Elkarlanak. Festa eta errebindikazioa elkartuko dituen egun honek, Abiadura Handiko Trenaren eta ekologia nahiz gizarte arloan kalte larriak eragiten dituzten proiektu txikitzaileen inposaketaren aurkako aldarrikapena gizarteratu nahi du, baita datorren martxoaren 23an AHTa geldiarazteko Hernanitik Astigarragara egingo den hurrengo manifestaziora jende guztia biltzeko animatu ere. Donostialdea-Oarso-Bidasoa eskualdeko AHT GELDITU! Elkarlanak, martxoan eratu dituen mobilizazio hauen bidez, gure herrietan AHTren aurka garatzen ari den oposizioak eta azpiegitura-lan handien ugalketak eragiten duen etengabeko txikizioarengatik jende askoren baitan areagotuz doan sentsibilizazioak kalean adierazpen egokia izan dezaten lortu nahi du. Hori dela eta, gaur egungo gizarte hondatzaile eta esplotatzailea eraldatzeko konpromezua duten pertsona guztiengana heldu nahi dugu, proiektu horiek gelditu eta desarrollismoaren ondorio ekologiko eta sozial bortitzak atzean uztea ahalbidetuko duen gizarte-bizitza orekatu, solidario eta aske bat berreraikitzearen alde, Euskal Herrian gaurdaino egin diren mobilizazioak zabaltzeko eta AHTren aurka eratu den oposizioan aurrerapausoak emateko. Beraz, mobilizaziora eta martxoaren 23an Hernanitik Astigarragara antolatu den manifestaldian era aktiboan parte hartzera deitzen dugu, AHT bezalako proiektu erraldoiek merezi duten gaitzespena adierazteko eta horren geldiaratzea eskatzeko, naturarekiko begirunean eta gizarte zuzentasunean oinarrituriko etorkizun baten alde. Ekimen honek eskualdeko hainbat talde eta elkarteren sostengua jasoko duelakoan gaude gainera.

Esan bezala, manifestazioaren aurretik AHTren eta Proiektu Txikitzaileen Aurkako Eguna egingo da Donostian datorren martxoaren 3an, igandearekin. Egun horretan festa errebindikatiboko elkargune bat sortu nahi dugu, bai protesta era irudimentsu eta dibertigarrian komunikatzeko eta bai AHT eta proiektu txikitzaileen auziaz kontrainformazioa kaleratu eta jendea sentsibilizatzeko. Izan ere, AHTa geldiarazi nahi dugu, baina gainera, norbanakoaren eraldaketarako grina biziagotu eta borroka kolektiboari adorea ematen dioten adiskidetasun elkarguneak sortu eta bestelako mundu posibleak errebindikatu nahi ditugu, horixe bera irrikatzen duten beste pertsona guztiekin batera. Hartara, AHTren salaketak antzeko beste zenbait borroka eta gogo eraldatzaileekin bat egin eta elkartasunak trukatu dituen egun honetan: hirian bizikleta erabiltzearen alde handiagotzen ari den motorizazioari aurre eginez, lekuko nekazaritza iharduerak gordetzearen alde, Itoizko urtegiaren kontra, makroproiektu energetikoen aurka eta Jaizkibelgo superportuaren egitasmoaren oposizioan jarduten dutenekin, besteak beste.

AHTa eta proiektu txikitzaileak gelditzeko bideak badira. Borroka eta sormena, jendea eta martxa beharko ditugu. Lurralde desorekak zuzendu beharko dira eta hirigintzako merkatu espekulatuak eragiten duen hirien hazkundera mugak jarri. Globalizazioak berekin ekarri duen merkantzien garraioaren masifikazio aberrantea gutxitu, baita egungo bizimodu kontsumistarekin zerikusi estua duen pertsonen erokeriazko mugikortasun motoredunak eragiten dituen kalteak onartu ere. Irizpide sozialek, kulturelek eta ekologikoez aurrea hartu beharko diote gaur egunean nagusi den fundamentalismo ekonomiko neoliberalari, gizarte egiazki elkarbizitza-eremu gisa berreskuratzeko, eta ez negozioetarako esparru gisa. Tokian tokiko lekuen autonomia eta kalitatea berraurkitu beharko da, eta produkzioaren eta kontsumoaren eraketan, nahiz gizabanakoaren hamaika premia eta desirak betetzeko moduan, hurbiltasunari eta gertutasunean moldaturiko antolakuntza lokalari lehentasuna eman. Gizarteak ingurumenarekin dituen harremanak adiskidetu eta errotik aldatu beharko dira, esplotazioan baino elkarrekikotasunean oinarritzeko, helburua ez baita jada natura dominatzea, harmonian egokitzea baizik. Oreka galdu gabe permiti daitekeen teknika kopuruarekin konformatu beharko du, desarrollismo eta eguneroko bizitzaren kolonizazio teknologiko gisa aditzera emandako "aurrerapena" alde batera utzita, garapenzalekeria horrek berekin itsu-itsuan ekarri duen ingurumen sozialaren galerari eta desastre ekologikoari erreparatuta. Gure bizitza nahi dugun bezala antolatzeke eskubidea berreskuratu eta gauzatu

beharko da, gure bizibaldintzei dagozkien arazoengatik inguruan erabakitzeke ahalmenari indar emanaz, bizimodu betegarri eta osasuntsu bat sortzeko. Horiexek dira, eta ez besterik, utopiaren atributuak; baina utopia hau --ezin bestela izan!-- nahiko hurbil daukagu, bere osagai batzuk ezagutzen ditugu, beste batzuk aurkitu beharra dago eta, jakina, beste asko asmatu beharko dira.

AHTren auziaren egungo egoerari dagokionean, oposizioak indar handiak bildu beharko ditu instituzioetatik bultzatzen ari den inposizioari aurre egiteko eta abian jarri gero ingurumen, gizarte, lurralde eta ekonomia aldetik kalte larriak eragingo lituzkeen proiektu hau geldiarazteko. AHTren aurkako borrokak, azken urteetan, askotan azaldu ditu proiektu honen oposizioan aritzeko arrazoiak, azpiegitura lan handien alde gaitzesgarrienak nabarmentzen dituelakoan. Gainera, herritar asko arduratu da AHTk gure ingurugiroari, arlo sozioekonomikoari eta kulturalari eragingo lizkiokkeen era askotako kalteen larritasunaz: eraso ekologiko latza, lurralde desoreka izugarria, desberdinkeria sozialen areagotzea, nekazaritzako eremuetan oso inpaktu larria, gizarte eremuan eragin bortitza, etabar. Hortaz, proiektu hau geldiarazteko mobilizazioari bultzada indartsu bat eman behar diogu, are gehiago "Euskal Y"aren aprobazio fasea amaituta Eusko Jaurlaritzak AHTren makineria astuna berehala abian jarri nahi duen honetan, berriki Frantzia eta Espainiako gobernuei nahiz Europako Batzordeari presio egiteko Akitaniarekin eratu duen "lobby" a dela medio, afektaturiko herrien eta jendeen iritziaz inolako axolarik izan ez duen bitartean. Horrekin, leize gero eta sakonagoa zabaltzen ari da azpiegitura erraldoiak sustatzen dituzten indar ekonomiko-politikoaren eta halako proiektuak onartezintzat jotzen ditugun jende askoren artean, ingurugiroari kalte larriak eragiteaz gain gizarte eredu bat inposatzea dakartelako.

Hori denagatik, jende guztiari dei egiten diogu martxoaren 23an larunbatarekin Hernanitik Astigarragara egingo den manifestazioarekin bat egiteko, eta era berean, datorren martxoaren 3an igandean Donostian ospatuko den AHTren eta Proiektu Txikitzaileen Aurkako Egunean parte hartzea animatzeko.

MARTXOAK 3 EGUNEKO EGITARAUA:

Programaturiko ekintzak goizeko 11etan hasiko dira. Orduan alde zaharreko kaleak trikitilari talde batek alaituko ditu eta nekazaritza ekologikoaz erakusketa bat izango da Bretxan. Eguerdiko 12etan Sébastopoleko Titiriteroek haurrentzako txoko bat zabalduko dute Sarriegi Plazan, eta plaza honetan bertan, bestalde, egun osoan proiektu txikitzaileen auziari buruzko erakusketa informatibo bat ikusi ahal izango da (garraio azpiegiturak, energia planak, etab). Aldi berean, eguerdiko 12etan bizikleta martxa errebindikatibo bat abiatuko da Bretxatik, AHT eta proiektu txikitzaileak geldiaraztea eskatzeko. Donostia erdiguneko kaleetatik ibiliko da hori, Anoeta, Easo Plaza, Zurriola eta Gipuzkoako Plazan barrena. Bretxara itzuli ahala, ordu 1ak aldera, jende artean jokoak eta herri kirolak egingo dira Sarriegi Plazan. Ordu 2etan herri bazkaria egingo da Trinitate Plazan, non ekitaldi sorta bat egingo den arratsaldean, sarrera dohainik. Hala, 3'30etan ekitaldi informatibo labur bat izango da: Teresa Jauregizar Gladys del Estal Fundazioko kideak eta eskualdeko AHT GELDITU! Elkarlaneko lagun batek AHTren eta proiektu txikitzaileen aurkako borroka jardungo dute. 4etan bertotan arituko dira Estitxu Arozena, Jon Maia, Amets Arzallus eta Estitxu Eizagirre bertsolariak. Eta jarraian magia ikuskizuna eskainiko du Txan Magoak. Hori amaitutakoan, 6etan kalejira koloretsu eta burrunbatsua aterako da Trinitate Plazatik, Mulambo perkusio taldearen erritmo biziak lagunduta, alde zaharrean proiektu txikitzaileen aurkako aldarrikapena hedatzeko. "Agua 0 en Itoitz" kale antzezikizunak, berriz, Itoitzko urtegiaren eta egun Iruñeko espetxean preso dagoen Iñaki Garcia Koch solidarioaren espetxeratzearen basakeriak salatuko ditu. Azkenik, arratsaldeko 7'30etan, Trinitate Plazan, talo dastaketa, Jaikzibelgo superportuaren aurkako diorama eta AHTren aurka azken urteotan egindako hainbat ekintza eta mobilizazio erakutsiko dituen bideoa emango da, eguneko mementu ludiko eta kontrainformatiboak betez. Ekitaldiak bukatuta, 9etan nahi duten lagun guztiak bilduko dira plazaren garbiketa egiteko.

Zuen partehartzea espero dugu eta deialdi honen berri zuen inguruan ematea eskatzen dizuegu beraz.

AHT GELDITU! ELKARLANA

(Donostialdea-Oarso-Bidasoa)

Tlfnoa: 943-518168

LLAMAMIENTO PARA LA MANIFESTACIÓN HERNANI - ASTIGARRAGA CONTRA EL TREN DE ALTA VELOCIDAD EL PRÓXIMO DÍA 23 DE MARZO

La Coordinación AHT GELDITU! Elkarlana de Donostialdea-Oarso-Bidasoa llama a participar en la manifestación que se celebrará el sábado 23 de marzo en contra del TAV y que transcurrirá desde Hernani hasta Astigarraga. La Manifestación dará comienzo a las 5:30 de la tarde en la Plaza Ezkiaga (Tilos) de Hernani, y concluirá en la Plaza del Ayuntamiento de Astigarraga. Esta marcha de protesta se realizará bajo el lema "¡Entre tod@s Stop al TAV!" y esto es precisamente lo que se pretende transmitir, que está en nuestras manos, en las del pueblo, el detener esta barbarie.

Esta manifestación pretende llevar a la calle el cada vez más extendido sentimiento de oposición al proyecto del TAV, a la vez que dar un mayor impulso a las movilizaciones que hasta la fecha se han dado en Euskal Herria. Debemos manifestar el desacuerdo de la sociedad con este proyecto totalmente antisocial, antiecológico, explotador de recursos y que además no es nada adecuado para Euskal Herria. Por esto debemos movilizarnos, para exigir la paralización del proyecto del TAV. Este llamamiento está abierto al apoyo de todos los grupos sociales, asociaciones culturales y grupos políticos que quieran mostrar su adhesión (ver al final teléfono y e-mail).

La gravedad de la situación nos exige una respuesta contundente. Desde el Gobierno Vasco y el resto de Administraciones se está tratando de impulsar un proyecto que tendría consecuencias muy negativas para nuestro medio ambiente, nuestro ámbito socioeconómico y nuestra cultura. Recientemente hemos tenido noticia además de la creación del lobby Euskadi-Aquitania, nacido con el fin de aumentar la presión a favor del TAV, sin que en ningún momento se hayan tomado en consideración las consecuencias negativas del proyecto. Otros grandes estamentos como son las Cámaras de Comercio, los empresarios y las grandes transnacionales del transporte, ya han mostrado el gran interés que tienen en llevar adelante cuanto antes el desarrollo del TAV. Todos ellos anteponen los intereses económicos y está claro que pretenden seguir adelante con el proyecto, cueste lo que cueste, sin mostrar el más mínimo respeto ni por la sociedad ni por el medio ambiente, y construyendo a su vez un modelo de sociedad neoliberal, capitalista y globalizador.

El pueblo tiene que demostrar su fuerza y decir alto y claro: ¡Stop al TAV! Hay otros ejemplos de victorias conseguidas gracias a la persistencia y a las movilizaciones de la gente. Es el pueblo el que tiene que decir como quiere que sea su entorno, y no se puede permitir el dejar esta decisión en manos de nadie más.

Esta oposición al TAV quiere además poner en tela de juicio el modelo de transportes, la ordenación del territorio, y en resumidas cuentas, el modelo de sociedad que se está impulsando desde las instituciones. El hoy en día tan manoseado concepto de Sostenibilidad deja totalmente fuera de lugar un proyecto tan impactante como es el del TAV, y por el contrario, exige dar prioridad a un ordenamiento local basado en la cercanía, reforzar unas interrelaciones socioeconómicas basadas en el respeto a la naturaleza, y desde este punto de partida, adecuar el sistema de transportes a las necesidades que de este modelo se detecten. Los valores en los que se basa esta idea de Sostenibilidad son la solidaridad, el equilibrio, la libertad y el respeto por el medio ambiente, y nunca la dependencia tecnológica, el desarrollismo y una sociedad organizada únicamente entorno a intereses económicos. A fin de cuentas, nuestra madre tierra es el más preciado bien que se nos ha dado en préstamo, y es nuestra obligación devolvérselo a nuestros sucesores, cuando menos, en las mismas condiciones en las que lo hemos recibido.

La reivindicación de esta manifestación es la siguiente: ¡Entre tod@s Stop al TAV! Y la lucha contra el TAV es la lucha contra un proyecto de sociedad que se quiere construir sin la participación de la población. Por tanto, si nuestra reivindicación es la tuya, acude a la manifestación del próximo día 23 de marzo que transcurrirá entre los pueblos de Hernani y Astigarraga.

TRAS LA MANIFESTACIÓN CONCIERTO

Para darle a la manifestación un ambiente festivo, y con el fin además de recaudar fondos para esta lucha, se ha previsto un concierto a la finalización de la marcha en el frontón de Astigarraga en el que se contará con las actuaciones de: *Tapia eta Leturia, LIF, Jauko Barik, Morau y el grupo de percusión Ttakunpa*. Así mismo habrá barra con bebidas y bokatas.

AHT GELDITU! ELKARLANA

(Donostialdea-Oarso-Bidasoa)

Tfno.: 943 518168; e-mail: ahtez@sindominio.net